

HAZI EZKUTUEN BILA

Haziak balio sinboliko handia du. Emankortasunaren eta bizitzaren irudi da. Horregatik botatzen diegu arroza ezkonberriei eta horretxegatik ere, jaten dituzte italiarrek dilistak Urtezahar gauean. Gaur egun, multinazional handien monopolio eta kontrol grinaren eta mundu osoko nekazari txikien jakintzaren arteko borroka ere irudikatzen dute haziak. Guztion onerako den horren partekatzearen eta patentatu eta saltzen den kapitalaren arteko borroka. Tradizionalki baserriarrek beren uztaren zati bat gordetzen zuten hurrengo urtean erein ahal izateko, eta modu honetan beren familiak elikatzeko. Gaur egun nekazari horietako asko gurrpil zoro batean harrapatuak daude, eta haziak eroatera behartuak daude emankorragoak izan arren beren autonomia galtzea eraginez. Horregatik, gure hazi propioak eskuratzeak haur guztiek ezagutu beharreko ekintza berritzaile bat da. Ekintza simple honetan dago, nor bere burua aski izatearen oinarria eta gure kulturaren jatorria. Gure haziak ugaltzeko gai izateak askeagoak egiten gaitu, eta gizartearen ezagupen zahar eta garrantzitsuenetako bat ematen digu.

Beste alde batetik, arazo ekologiko baten aurrean gaude, biodibertsitatearen galera. Arazo honi buruz hitz egiten dugunean, hegazti espezie ikusgarriak edo ugaztun handiak etortzen zaizkigu burura maiz. Baina bada beste biodibertsitate mota bat, poloetako hartz zuriaren, katamotz iberiarraren edo tigre siberiarraren alde borrokatzera eramaten gaituena bezain garrantzitsua. Laborantza-biodibertsitatearen suntsipen azeleratu bat bizi dugu azken urteetan, eskualde, herri edo bailara bakoitzean ohikoak ziren milaka laborantza-barietate desagertzen ari dira, emankorrageogatik ordezkatur.

Baratzearen kasuan, nahiko fenomeno ikusgarria da, asko baitira gaur egun aurkitzen zailak diren gure guraso eta aiton-amonen garaiko fruta eta barazkiak.

Helburuak:

Ikasleria antzinako hazien (bertako barietateak) "ikertzaile" edo "bilatzaile" bihurtzea proposatzen da jarduera honetan. Horretarako, baratzea lantzen duen bere inguruko norbaitekin (senide, lagun, bizilagun, etabar...) harremanetan jarriko dira eta, ahal bada, baratze horretan ugaltzen jarraitzen duten barazki barietate zaharrak bilatzen saiatuko dira. Ikasgelan egindako lana familia eta bizilagun esparrura zabaltzea ahalbidetuko duen baratzearen eta hazien mundura gerturatzea proposatzen du jarduera honek. Modu honetan, elikadura, landa garapena, gizarte eredu, eta abarrei buruzko belaunaldien arteko hausnarketa bultzatuz.

Materiala:

- Irakaslearen gida
- Lan fitxa
- Maritxuren baserria
- Hazien fitxa

Jardueraren Deskribapena:

Jarduera hau burutzeko ikasleek osatzen joateko lan-fitxa bat izango dute, ondorengo hiru faseak jasotzen dituena.

- Gure tomate familia: ikasleek bertako barietateei buruz eta beren erabilerari buruz hausnartzeko aukera izango dute jarduera honekin.
- Gure inguruko baserriak: elkarrizketa moduko jarduera, non ikasleek bere inguru hurbileko baserriarekin harremanetan jartzeko aukera izango duten.
- Hazi ezkutuen bila: Gure inguruko baserrietara gerturaketa bat egin ondoren, bertako barietateak dituztenak aukeratuko dira hazi horien inguruko informazioa biltzeko.

1. GAIA KOKATZEN

Fitxaren lehenengo zati honetan, ikasleekin hausnarketa egin eta gaia kokatzeko ariketa bat proposatzen dizuegu. Ikasmilaren arabera desberdina izango da ariketa hau, fitxa eredu bakoitzean ariketa desberdina duzuelarik:

- LHko ikasleentzat: Gure tomate familia
- DBHko ikasleentzat: Baserri bizia

A) GURE TOMATE FAMILIA (LH):

Hazi bilaketari ekin baino lehen, landatutako bioaniztasuna aurkezteko jarduera bat egingo dugu ikasgelan. Guztion artean "Tomate familia" bat osatuko dugu, eta horretarako ikasle bakoitzak bere tomate barietatearen ezaugarriak jasotzen dituen fitxa bete beharko du.

- Marrazkia: Ezaugarri morfologikoak islatuz
- Kolorea: gorria / morea / horia / berdea
- Tamaina: txikia / ertaina / handia
- Ur beharra: ur asko / ertaina / ur gutxi
- Batezbesteko tenperatura egokienaren tartea (°C) 10-15/16-20/ 21-25
- Eguzki beharra: handia / ertaina / txikia
- Zer ezin du jasan? Haizea, izotza, tenperatura aldaketa handiak
- Zer du gustuko? Haizea, izotza, tenperatura aldaketa handiak

Ikasle bakoitzaren fitxak tomate barietate bat irudikatuko du, eta "Nor da nor?" jolasaren antzeko dinamika baten bidez, Maritxuren baratzerako egokiena izango den barietatea aukeratuko dugu. Tomateen familian, munduko familia guztietan gertatzen den bezala, denetatik dago, ezaugarri eta gustu desberdinetako kideak.

Dokumentu honen amaieran atxikituta doan "Maritxuren baserria" fitxaren laguntzaz, Maritxuren baratzeak duen klima, altuera, fenomeno meteorologiko desberdinen esposizioa... deskribatzen joango gara. Baldintza horietara egokitzen ez diren "tomateak" (ikasleak) esertzen joango dira familiako kide gutxi batzuk geratu arte.

Dinamika egin ondoren, denon artean ondoren azaltzen diren galderak erantzuten saiatuko dira. Inguruari hoberen egokitutako barietateak landatzeak dituen abantaileri buruz hausnarketa bultzatu nahi dugu honekin, nola lor daitezken barietate hauek, eta nola iraunarazi.

Barietate bakoitzak ezaugarri eta behar desberdinak ditu. Behar horiek, gure baratzearen ezaugarriekin bat etortzeak baldintzatuko du, neurri handi batean, gure uztaren arrakasta.

Barazki bakoitzaren barietate bakarra izango bagenu, ezaugarri jakin batzuk dituen baratzean soilik haziko zen arrakastaz, edo energia eta produktuak inbertitu beharko genituzke (ongarriak, intsektizidak, ureztatzea...) galerak orekatzeko.

Multinazional handiek saltzen dituzten barietateek homogeneousatzeko joera dute, beraiek baitira lehen aipatutako beharrak asetzeko beharrezkoak diren produktuak saltzen dituztenak (ongarriak, intsektizidak...). Tradizionalki baserrietan haziak erauzi eta gorde izan dira, eta inguruko baserriekin truke bidez elkarbanatu. Gaur egun, hazi bankuak sortu dira baita ere, galtzeko arriskuan egon daitezkeen bertako barietateak babestu, gorde eta ugaritzeko.

B) BASERRI BIZIA

Ariketa honen bitartez, baserria bere osotasunean kontutan hartu eta dibertsitatearen abantailak aztertu nahi da. Lehenik eta behin, baserri baten argazkia erabiliz bertako atal desberdinak kokatuko ditugu. Tradizionalki, baserriek eremu desberdinak landu dituzte:

- Baratza: normalean etxearen inguruan kokaturiko tamaina ertaineko baratza izaten da. Pertsonak elikatzeko barazkiak landatzen dira bertan.
- Soroak: Baserritik zertxobait urrunago kokatzen dira eta leku gehiago behar duten laboreak lantzen dira bertan, bai pertsonen elikadurarako (artoa, babarruna, patata...) eta baita animalientzat ere. Honen inguruan, belarretarako zelaiak ere aurki daitezke.
- Fruta-arbolak
- Larreak: Udan abereak jatera eramateko guneak
- Abereak
- Sastrakadiak: animalientzat ohe eta neguko janaria lortzeko (garo-lekuak, otadiak...)
- Basoa: bertatik erabilera desberdinetarako egurra lortzen da: erregaia, eraikuntzarako materiala, lan tresnak egiteko materiala, zenbait elikagai (gaztainak, ezkurak)

Azken hamarkadetan, oso ohikoa izan da baserriak egitura oso hau izatetik atal batean espezializatu izana (monokultiboak, abeltzaintza intentsiboa,...) eta honek galerak ekar ditzake maila desberdinetan.

- Alde batetik paisaia du eragina, Euskal Herriko landa paisaia hein handi batean baserri eta hauen inguruko lurraren erabilerari loturik baitago.
- Beste alde batetik, biodibertsitate galera ere eragiten du. Izan ere, baserriak gizakiak eragindako ekosistema bezala kontsideratu ditzakegu eta espezializazioak aspalditik eskualde batean landatu izan diren espezieen desagertzea ekar dezake, eta are gehiago barietateei buruz ari bagara. Landatutako biodibertsitatearen beherakada honek, naturan ere bere eragina du asko baitira ekosistema honi moldaturiko espezieak.
- Azkenik, espezializazio honekin batera gertatzen den industrializazioak, jakintza eta ohitura desberdinen galera dakar.

Horretaz gain, baserrien etorkizunari begiratzen badiogu, dibertsifikazioak espezializazioaren aurrean abantaila desberdinak planteatzen ditu. Atal bakar bat lantzeak, bertatik ateratako produktuaren gorabeheren menpe uzten du baserriaren bizi iraupena eta askotan produktu hauek enpresa handien bitartez merkaturatzen direnez hauen baldintzetara egokitu behar izaten dute baserriek konpetibitate lasterketa batean sartuz.

Dibertsifikazioak, baserri bakoitzaren baliabideak hobeto aprobetxatzeko aukera ematen du eta erritmo naturalak errespetatuz baita ingurumena zaintzeko aukera ere.

2. GURE INGURUKO BASERRIAK

Jarduera honen bidez inguruko baserriak ezagutu nahi ditugu, beren ezaugarriak eta lan egiteko modua, bizi baldintzak, ohiturak... Horretarako, ikasleak binaka edo talde txikitan banaturik, ezagunen artean baserrian bizi den edo baratzea lantzen duen norbait bilatuko dute, eta elkarrizketa txiki bat egingo diote fitxan agertzen diren galderen laguntzarekin. Aldez aurretik gelan galderak errepasatzea komenigarria litzateke egon daitezkeen zalantzak argitzeko, eta galdera interesgarriak sortuko balitz galdetegian txertatu ahal izateko (zergatik bizi diren baserrian, zer duten gustuko, erabiltzen duten makineria, lanabesak...). Horretarako tartetxo bat dago fitxan baina behar izan ezkerro beste horri bat eraman dezakete!

Galderak egiteaz gain komenigarria litzateke argazkiak ere egitea eta DBHko ikasleen kasuan elkarrizketa bidez grabatzea ere oso polita litzateke.

Elkarrizketak burutu ondoren zenbait galderaren bidez bateratze-lana egitea proposatzen da, gure inguruari buruzko ideia orokorrako bat egiteko (ea denek egitura bera duten, lan esparru berdina lantzen dituzten edo batean edo bestean zentratzen diren, ea denek berdina landatzen duten...) eta bestetik, beren haziak gordetzen dituztenak identifikatzeko. Atal hau ere polita izan daiteke tokian tokiko eta garaian garaiko barazkiei buruz hausnartzeko, barazki bakoitza dagokion urtaroarekin erlazionatuz, tomateak urte osoan jaten dituzten galdetuz...

3. HAZI EZKUTUEN BILA

Behin beren hazi propioak lortu eta gordetzen dituzten baserriak identifikatuak, gai honekin zuzenean lotutako ikerketa egingo dugu.

Aurkitutako baserri kopuruari eta eskola bakoitzaren errealitateari egokituko zaio landa lana:

- Bisitatzeko baratzeak: beren hazi propioak gordetzen dituzten baserriak aukeratuko ditugu, baita jardueran interesa azaldu dutenak ere.
- Azterketa taldeak: baserri kopuruaren arabera ikasleak taldeetan banatuko ditugu (bakarkakoak, binaka, taldeka...)
- Bisiten planifikazioa: Noiz, nola, distantziak, laguntza behar ote den...

Baserri horiek bilduko dituen taula bat sortzea proposatzen da fitxan, gordetzen dituzten barietateak eta beraiekin dokumentu honek atxikituta duen "Haziaren fitxa" bete ahal izan ote den. Lortuko ditugun hazien fitxekin, egitasmoaren bigarren zatian zehar ikastetxean eraiki ahal izango dugun hazien artxiboan izango den fitxategi bat osatu ahal izango dugu.


Amaitzeko, eginiko lanari eta bildutako informazioari erabilera emateko proposamenak pentsatzera animatuko duten galdera sorta proposatzen da ikasleen fitxan, denon artean erantzun eta proiektuaren bigarren zatiari atek irekiko zaizkiolarik.

HARREMANETARAKO:

Material guztia interneten zintzilikatuta egongo da, Cristina Enea Fundazioaren webgunean, Ingurumen Baliabide Etxea barruan, proiektuak atalean (<http://www.cristinaenea.eus/eu/proyectos/nekazal-kultura-eskoletara>).

Edozein zalantza argitzeko nekazalkultura@gmail.com helbidean aurkituko gaituzu.

NEKAZAL KULTURA ESKOLETARA



MARITXUREN BASERRIA

MARITXUREN BASERRIA OSO POLITA DA, TXURI TXURIA ETA BALKOIAK LOREZ BETETA. BERTAN MARITXU BERE GURASO ETA ANAI-ARREBEKIN BIZI DA. BASERRIKO LANAK DENEN ARTEAN BANATZEN DITUZTE ETA MARITXUREN ARDURA BARATZEA LANDATU ETA ZAINTZEA DA. AURTEN BESTE HAINBAT GAUZAREN ARTEAN TOMATEAK LANDATU NAHI DITU. JOAN DEN URTEAN OSO GUTXI ATERA ZITZAIZKION ETA AURTEN BERE BASERRIRA HOBEEKIEN EGOKITZEN DIRENAK BILATU NAHI DITU. LAGUNDUKO AL DIOGU DENON ARTEAN?

HORRETARAKO MARITXUREN BASERRIAREN EZAUGARRIAK AZTERTUKO DITUGU ETA HOBEEKIEN EGOKITZEN DIREN TOMATEAK AUKERATUKO DITUGU:

(JOKOA AZALDU: EZAUGARRIAK IRAKURTZEN GOAZEN HEINEAN, BAT EZ DATORREN EZAUGARRIA DAUKANA ESERI EGINGO DA)

MARITXUREN BASERRIA MENDI PUNTAN DAGO. BERTAN HAIZE ASKO EGITEN DU URTEKO ZENBAIT GARAITAN. HEGOALDERA BEGIRA DAGO, BERAZ, EGUN OSOAN ZEHAR JASOTZEN DU EGUZKIAREN ARGIA. HONEK EGUERDIKO TENPERATURA ALTUA IZATEA ERAGITEN DU, 20°C-TIK GORA IRITSI DAITEKEELARIK. BAINA GAUETAN, MENDI PUNTAN DAGOENEZ, ASKO FRESKATZEN DU, 10°C INGURURA JAITSIZ. BARATZEAN BATEZBESTEKO TENPERATURA 22°C-KOA DA. HAINBESTE EGUZKIREKIN, ETA HODEIAK MENDIAREN BESTE ALDEAN GERATZEN DIRELA KONTUTAN HARTUTA, LURRA OSO LEHORRA EGOTEN DA ETA EGUNERO UREZTATZEA LAN HANDIA DENEZ, UR GUTXI BEHAR DUTEN BARIETATEAK BEHAR DITU.

TOMATE HAUETAKO BATZUK ETXEAN JATEN DITUZTE, BAINA BESTE BATZUK PLAZAN SALTZEKO DIRA. HORREGATIK, BERTAKO JENDEAREN OHITURETARA EGOKITU BEHAR DIRA. ETXEAN GAUZA BERRIAK PROBATZEA ATSEGIN DUTE. AURTEN TOMATE HORIAK PROBATZEA GUSTATUKO LITZAIÓKE. PLAZARAKO BERRIZ, HOBE EZ ARRISKATZEA: GORRI ETA HANDIAK NAHIAGO! ESAN DIOTE ONDOKO BASERRIAN BETIDANIK LANDATZEN DUTEN BARIETATE GORRI-GORRI ETA GOZOGOZOA DAUKATELA! MMMMM!

BA AL DAGO HAZITEGI HONETAN MARITXURENTZAKO APROPOSA DEN BARIETATERIK?